



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

## Soraia Chacón da Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Sareen Sareko presidente berria

- Batzar Nagusiak aho batez onartu du datozen hiru urteetarako Zuzendaritza Batzordea berritzea.
- EHLABEko Pablo Moratallak presidenteorde kargua izango du, eta elkarteak hirugarren sektorre soziala indartzeko eta kohesionatzeko lanarekin jarraituko du.
- Hirugarren Sektorre Soziala irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute eta pertsona guztien eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea da bere helburua.

**Bilbo, 2023ko ekainak 21.** Azken Batzar Nagusian, Sareen Sareak Zuzendaritza Batzordea berritzea onartu du, hiru urtean behin karguak berritzeko estatutu-agindua betez. Horrela, beste sare eta pertsona batzuei erreleboa eman zaie eta gure elkartearen funtzionamendu anitzarekin jarraituko da.

**Soraia Chaconek**, orain arte [Harresiak Apurtuzeko](#) ordezkarria Zuzendaritza Batzordean eta sareko presidenteordea azken hiru urteetan, Sareen Sareko **presidente kargua hartuko du** hurrengo hirurtekoan, [Hirekin](#) sareko Borja Dovalen ordez. [EHLABEko](#) Pablo Moratalla izango da **elkarteko presidenteorde berria**.

Etapari berri honetan erakundeko idazkaritzako eta diruzaintzako karguak ere berritu dira. Horrela, **M<sup>a</sup> José Cano** ([Euskadi Buru Osasuna-Fedeafes](#)) izango da Sareen Sareko idazkari berria, lehenago [ONCE](#)ko José Antonio Pérezek bete du kargu hori. Sarearen diruzaintzaren buru **Celia Gómez** ([Lares Euskadi](#)) izango da eta hark hartuko dio lekukoa M<sup>a</sup> José Canori.

Hautagaitzak Batzar Nagusiaren **ahoi bateko babesa** izan du eta **Borja Doval presidente ohiak sareen sarean egindako ibilbide osoan egindako lana eskertu da** saioan.

Zuzendaritza Batzorde berriak aurreko taldeak egindako lanari jarraipena emango dio, eta **Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala kohesionatzeko eta indartzeko** lanean jarraituko du. Era berean, Chaconek Borja Dovalen eta Zuzendaritza Batzordeko gainerako ordezkarien lana eskertu du. Soraia Chaconek Sareen Sarea osatzen duten erakundeen aniztasuna nabarmendu du, elkar ulertzeko eta sektorea sendotzeko elkartearen indarguneetako bat den aldetik.



## Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

### Sareen Sarea eta Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

**Sareen Sarea elkartea 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako 17 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiek hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, haurrak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, ekonomia soziala, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.**

Hirugarren Sektore Soziala **irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute** eta helburua da gizarteratzea eta zaugarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea.

Egun, **4.000 erakundetik gora osatzen dute, 40.000 lanpostu sortzen ditu, 160.000 boluntario baino gehiago daude** eta **Euskadiko % 2,4ko BPGren<sup>1</sup>** baliokidea den bolumena kudeatzen du.

### INFORMAZIO GEHIAGO

Mikel Barturen

688 875 343 / 946 569 230

[koordina@sareensarea.eu](mailto:koordina@sareensarea.eu)

---

<sup>1</sup>2021eko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia*. 2021eko abendua.